

Apirilak 22: Ama Lurraren Munduko Eguna

Bada garaia, Leitzarana, Parke Naturala orain!!

Haritzalde Naturzaileen Elkartek **Ama Lurraren Munduko Eguna** aspaldikoa den aldarrikapen historikoa gogora ekarriz ospatu nahi du: **Leitzarana Parke Naturala!**

90. hamarkadaren hasieran alderdi politikoek eta agintariak agindutakoa betetzeko unea iritsi dela uste dugu. Ordungo aldarrikapena eta han pizturiko sua ez dira urte hauetan guztietan itzali, eta Leitzarana ibaia eta bere ertzak Biotopo babestua izendatu baziren ere, arroaren parte bat gerora Garrantzi Komunitarioko Lekua (GKL-LIC) eta berriki Kontserbazio Bereziko Eremua (KBE-ZEC) bilakatu badira ere, kanpoan babesik gabe azalera handiegia geratu zen eta ondorioz garai hartako babes-gogoia ez da orain arte asetu. **EAJ-PNVri eta BILDUri** (orduan Herri Batasunak sinatu zuen hitzarmena) **behingoz hitza betetzeko eskatzen diegu eta 1991n adosturikoari, eta batez ere esandakoari eutsiz, Leitzarango Parke Naturala sortzea.**

Datozen egunetan Eusko Jaurlaritzari, Gipuzkoako Foru Aldundiari, eta Andoain, Berastegi, Billabona, Elduain, Hernani eta Urnietako Udalei proposamen formalak bidaliko diegu. Parke Naturala lehenbailehen egi bihurtu dadin denok batera aritu behar dugula uste dugu eta horrela helaraziko diegu Erakunde inplikatuak, baina baita alderdi politiko guztiei ere. Izan ere geratzen zaigun Ondare Naturala apurra denon artean kontserbatu beharra daukagu.

Parke Naturala izendatzeko arrazoi ugari asko dago: aztarnategi arkeologikoak (Onddi-Mandoegiko estazio megalitikoak esaterako), geologia (aipatu Aiako Harria mazizo bera Leitzaraineraino iristen dela), ekosistemak, habitatak eta landaredia, fauna, historia... Balio natural handiko eremuak hartuko lituzke, asko honez gero Mendi Publikoak dira, eta apenas bizi da inor lurraldearen zati handi batean (Leitzaranean eta Kartolan esaterako), potentzialitate ikaragarria eskainiz. Ezin ahaztu lur hauen bokazio naturala gehienbat kontserbazioa, babes landaketa eta bertako erregenerazioa direla. Gainera Urumea eta Leitzarana ibaien arroaren parte zabala babespean geratuko litzateke, baina baita horien hainbat ibaiadar, erreka eta erreka. Esan beharra dago ibai-ekosistemak direla gure ihardueraren ondorioz kaltetuenetarikoak eta gutxi direla kontserbazio-maila ona mantentzen dutenak. Haltzadiak (Leitzarangoa esaterako), baso misto eta hariztiak, pago lepuak, zohikaizkegiak (Usabelartzakoa kasu), Batasun babeseko habitat, landare eta fauna espezie, nahiz Erkidego mailan mehatxaturiko ugari topa daitezke. Horrela Parkean topa daitezke bisoia, ipurtatsa, basakatua, muturluzea, belatz handia, aztorea, arrano sugejailea, izokina eta beste asko, esaterako Gipuzkoako uhandre piriniarraren populazio bakarra edo gertuko arrano beltzaren ehiza-lekua.

Hainbat datu:

- **Azalera:** 9.500 ha inguru
- **Mugak:** iparraldean Urumea ibaia eta Hernani; ekialdean Nafarroa; mendebaldean Urnieta, Andoain eta Billabona; hegoaldean A-15aren ibilbideak finkatzen du.
- **Herriak:** Andoain, Berastegi, Billabona, Elduain, Hernani eta Urnieta.
- **Naturguneak:** ES2120013 KBE-ZEC (Leitzarano Ibaia), ES2120015 KBE-ZEC (Urumea Ibaia) eta Leitzarango Biotopo Babestua (416/1995 DEKRETUA, irailaren 29koa, Leitzarano Ibaia Babestutako Biotopo deklaratu duena). Gainera Aiako Harria Parke Naturalarekin muga egingo luke Urumean.
- **Mendi tontorrak:** Adarra (817 m), Onddo (784 m), Zaburu edo Argarate (778 m), Azketa (834 m), Leuneta(883 m), Abade-kurutx (981 m), Mandoegi (1045 m) eta Urepel (1056 m); Alzadi (1011m), Arizmendi (489 m) Belabieta (687 m), Arnar edo Loa (788 m), Urdelar (852 m), Larre edo San Lorenzo (800 m) e Ipuliño (930 m).

Autobiako afera: Leitzarano bailara zeharkatu behar zuen autobidearen aurka gizartearen parte handi bat agertu zen eta, presioak zirela medio, 1992ko apirilean proiektaturiko ibilbidea aldatu zen. Aurretik, 1991ko abuztuan EAJ-PNV (Eusko Jaurlaritzaren berreskuratu berri zuela PSE-PSOEn laguntzaz) eta Herri Batasuna Lurralde Koordinakundeak bultzaturiko hitzarmena sinatu zuten, proiektu ofiziala baztertu. Hurrengo hilabeteetan atzera egiteko saiakerak izan arren 1992ko apirilean PSEk bat egin zuen aldaketarekin eta “San Lorenzo” izeneko alternatiba, zertxobait moldaturik, onartu zuten. Handik aurrera egungo A-15eko lanak hasi ziren Leitzarano haranetik kanpo. Agerraldi publikoetan politikari batzuek eta besteek Leitzarano Parke Naturala izateko bidean zela esan zuten Horixe agindu zitzaigun eta 21 urte geroago batzuk oraindik horren zain gaude.

Edozein zalantza argitzeko: **609 420 438** edo naturzale@haritzalde.org



www.haritzalde.org